

RUTAS POR EL CONDADO DE TREVIÑO



IBILBIDEAK
TREBIÑUko
KOÑDERRIAN ZEHAR

INTRODUCCIÓN

El municipio de Condado de Treviño es un territorio fértil con un gran patrimonio cultural, natural y paisajístico. Longitudinalmente es atravesado por el río Ayuda y regado por todos sus afluentes, al norte limita con los montes de Vitoria y al sur con los macizos que forman la Sierra de Cantabria.


Sobre un relieve formado por suaves ondulaciones que alternan materiales calizos del Cretácico Superior con materiales arenosos del Terciario es una tierra de transición. Se refleja en su vegetación con influencias atlánticas y mediterráneas, en la que se extienden bosques caducifolios de hayas, robles y singulares tejos, junto a masas de encinares y quejigales, y serpenteantes bosques de ribera con arces y alisos, que caracterizan y naturalizan este territorio. En estos habitan multitud de animales y hongos; se destacan los corzos, zorros, jabalíes, milanos reales, cárabos...

En este privilegiado escenario natural, entre densos bosques y campos de cultivo, aparecen pequeños pueblos que conservan su arquitectura popular. Antiguos senderos y caminos unían a sus gentes y eran transitados como vías de comunicación entre territorios colindantes. Este territorio se convirtió en punto de paso y cruce de caminos como la calzada Burdeos-Astorga y el camino real entre Vitoria y Rioja Alavesa.

Hoy en día, muchos de estos se han abandonado y ya no se recorren; por ello, con este proyecto de recuperación de caminos, el Ayuntamiento quiere darlos a conocer.

A continuación, se presentan seis rutas circulares que forman el primer trabajo de recopilación y restauración de caminos para conocerlos, recorrerlos y disfrutarlos. **Está en nuestras manos la conservación y cuidado de estos caminos, de nuestro paisaje y de nuestro territorio.**

Gracias a la colaboración de Ibita -Instituto de estudios treviñeses-, a las personas que habéis aportado vuestro conocimiento sobre el territorio y a la foto de portada de Susana V. Pérez (Suiboku).



HITZAURREA

Trebiñuko Konderriko udalerria kultura, natura eta paisaia ondare handiko lurrealde emankorra da. Luzetara, Ihuda ibaiak zeharkatzen du, eta ibaiadar guztiak ureztatzen dute. Iparraldean, Gasteizko mendiekin egiten du muga, eta, hegoaldean, Kantabriako mendilerroa osatzen duten mendiguneekin.


Goi Kretazeoko kareharizko materialak eta Tertiarioko material hareatsuak tartekatzen dituzten uhindura leunez osatutako erliebe baten gainean dago, eta trantsizio-lurra da. Hori dela medio, Atlantiko zein Mediterraneoko eraginak ditu landarediak. Bertan, pagoen, haritzen eta hagin berezien baso hostoerorkorrak zabaltzen dira, artadi eta erkameztien ondoan, baita astigar eta hultzak dituzten ibaiertzeko baso bereizgarriak ere. Animalia eta onddo ugari bizi dira han, hala nola orkatzak, azeriak, basurdeak, miru errealkak eta urubiak.


Inguru natural pribilegiatu horretan, baso eta soro trinkoen artean, herri txikiak agertzen dira, beren herri-arkitekturari eusten diotenak. Antzinako bidexka eta bideek hango jendea batzen zuten, eta inguruko lurrealdeen arteko komunikabide gisa erabiltzen ziren. Hala, bada, pasabide eta bidegurutze bihurtu zen lurrealdea; horren adierazle dira, besteak beste, Bordele-Astorga galtzada eta Gasteiz eta Arabako Errioxaren arteko errege-bidea.

Gaur egun, haietako asko utzi egin dira, eta jada ez dira erabiltzen. Horregatik, bideak berreskuratzeko proiektu honekin, Udalak ezagutzen eman nahi ditu.

Jarraian, sei ibilbide zirkular aurkezten dira, bideak bildu eta zaharberritzeko lehen lana osatzen dutenak, haien ezagutu, zeharkatu eta gozatzeko. **Gure esku dago bide hauak, paisaia eta lurrealdea zaintza.**

Eskerrik asko IBITARI —Trebiñuko Ikasketen Institutua— laguntzeagatik, lurrealdeari buruzko ezagutza eman duzuenei eta Susana V. Perezi (Suiboku), azaleko argazkiarenengatik.





- 1 MUERGAS-SAN FORMERIO**
- 2 TREVIÑO-BUSTO DE TREVIÑO-CUCHO**
- 3 LA RUTA DE LA ESCUELA / ESKOLAKO IBILBIDEA**

-
- 4 MOSCADOR-DORDONIZ-ERMITA SAN ANDRÉS**
 - 5 TARAVERO - MORAZA**
 - 6 BAGATZEDERRA**

0 2,5 5 km



MUERGAS-SAN FORMERIO MORGAS-SAN FORMERIO




San Formerio

Partimos desde la localidad de Muergas para ascender a la ermita de San Formerio por la ladera sur más empinada y descenderemos por la ladera septentrional que es más suave. A pesar de ser una cima muy modesta (752 m.) posee una importante vista panorámica, encontrándose en la mitad de dos valles formados por el río Zadorra y el río Ayuda. Desde la cumbre se puede divisar las cimas más relevantes de las provincias colindantes, como son Gorbea, Aitxuri, San Lorenzo y San Millán. A través del sendero se atraviesa un precioso bosque de quejigos, encinas e importantes enebros, que también es hábitat de multitud de fauna, bien sabida su existencia por la cantidad de huellas y rastros que se encuentran en el camino. Ascendiendo se deja a la derecha la cima gemela, el Alto del Gurugú (749 m.), se continua hacia la fuente de Santa Agueda y de este punto se asciende con más pendiente a San Formerio. En el exterior de la ermita se encuentran unas tumbas antropomorfas que nos hablan de la temprana presencia humana en este lugar. El mantenimiento de la ermita ha recaído sobre la Divisa, formada por las localidades de Añastro, Muergas, Estavillo, Burgueta, Pangua y San Esteban de Treviño. En el interior de la ermita destaca el sepulcro del santo, una hermosa obra de principios del siglo XVI.

Morgas herritik abiatu eta San Formerio baselizara igoko gara, hegoaldeko magal malkartsuenetik, eta ipar-hegaletik jaitsi, leunagoa da eta. Tontor txikia den arren (752 m), ikuspegi panoramiko bikaina eskaintzen du, Zadorra eta Ihuda ibaiek osatutako bi haranen erdian. Gailurretik, ondoko probintziako tontor garrantzitsuenak ikus daitezke: Gorbeia, Aitzuri, San Lorenzo eta San Millan. Bidezidorretik, erkametz, arte eta ipuruen baso ederra zeharkatzen da. Baso hori, gainera, fauna askoren habitat ere bada, bidean aurki daitezkeen arrasto ugariek adierazi bezala. Igoz gero, gailur bikia utziko dugu eskuinetara, Gurugu gaina (749 m), Santa Agueda iturriantz jarraituko dugu eta, bertatik, malda handiagoarekin igoko gara San Formeriora.

Baselizaren kanpoaldean, hilobi antropomorfoak daude, leku horretan gizakia goiz zegoen seinale. Añastro, Morgas, Estavillo, Burgeta, Pangua eta San Esteban herriek osatzen duten Dibisaren gainean mantendu da la baseliza. Barruan, santuaren hilobia nabarmentzen da, XVI. mende hasierako obra ederra.



7,3 KM.

290 M.

2,20 H.



2

TREVIÑO-BUSTO DE TREVIÑO- CUCHO

TREBIÑU-BUSTU- KUTXU

Es una ruta sencilla que transcurre prácticamente por caminos agrícolas, anchos y cómodos. Se inicia por un sendero estrecho e inclinado que pronto se une al antiguo camino que fue utilizado diariamente en el siglo XX por las niñas y los niños de Bustu de Treviño para ir a Treviño. El monumento más destacado de la localidad es la parroquia de San Cipriano y Santa Justina.


En el recorrido entre las localidades de Bustu de Treviño y Cuchu se pueden encontrar algunas escombreras, lugares de extracción de silex (el barranco Faudinos, las zonas de Los Hoyetes, Lacones y San Pedro).

Cuchu es una de las localidades más hermosas de Condado de Treviño por su arquitectura pintoresca. Es admirable su conjunto de casas, entre las que destaca las del siglo XVI y siglo XVII.



Cuchu: la arquitectura popular que ha sido cuidadosamente restaurada.

Kutxu: kontu handiz zaharberritutako herri-arkitektura.



Nekazaritza-bide zabal eta erosoeetatik igarotzen den ibilbide erraza da. Bidexka estu eta inklinatu batetik hasten da, eta laster elkartzen da XX. mendean Bustuko haurrek Trebiñura joateko egunero erabiltzen zuten bide zaharrarekin. Herriko monumenturik aipagarriena San Zipriano eta Santa Justinaren parroquia da.

Bustu eta Kutxu herrien arteko bidean hondakindegi batzuk aurki daitezke, silexa erauzteko tokia (Faudinos sakana eta Los Hoyetes, Lacones eta San Pedro eremuak).

Bere arkitektura bitxia dela eta, Trebiñuko Konderriko herririk ederrenetakoa da Kutxu. Etxe-multzo miresgarria dauka, non XVI. eta XVII. mendeetakoak nabarmenzen baitira, besteak beste.

7,5 KM

290 M.

1,45 H.

LA RUTA DE LA ESCUELA ESKOLAKO IBILBIDEA



Custodiemos a los ríos, cuidemos la calidad de sus aguas, su entorno, ya que dependemos de ellos.

Zaindu ditzagun ibaiak, zaindu dezagun haien kalitatea, ingurunea, haien mende baikaude.

Ibilbide zirkular honek Ozanako eskola 1965ean ixtean Grandivaleko eskolara joateko erabiltzen zen bide zaharraren zati bat zeharkatzen du. Bidea Cogolla edo Caricedo mendilerroaren magaletik doa. Bertan, aipatzeko da Pozarrateko aztarnategia, historiaurreko silexekoz meatze multzoa, meatzaritza neolítikoaren adibide bakana, Iberiar Penintsulan garrantzitsua dena.

Herriak zeharkatzean, Araikon ikuztegiak, iturriak eta askak osatutako multzora hurbiltzea eta Ozanako ikuztegia, iturria, parroquia eta etxebizitzak bisitatzea gomendatzen da.

Ihuda ibaiaren ertzetik paseatuz amaitzen da ibilbidea, ur-bazterreko basoa miresteko, makal, astigar, lizar eta sahatsez osatua. Antzinako errotak, garai bateko aztarnak, aurkitzen ditugu han.

Haeuk dira tontorrik garaienak: Cerro (901 m), Culebra (885 m), Cogolla (874 m) eta Alto del Silo (835 m).

Esta ruta circular recorre parte de un antiguo camino que se usaba para ir a la escuela de Grandival cuando se cerró la escuela de Ozana en 1965. El sendero discurre por las faldas de la sierra de la Cogolla o de Caricedo, siendo destacable porque se localiza el Yacimiento de Pozarrate, unas minas de sílex prehistóricas, que son un raro ejemplo de minería neolítica, importante en la Península Ibérica.

Al atravesar los pueblos se recomienda conocer el conjunto formado por el lavadero, la fuente y el abrevadero en Araico y visitar el lavadero, fuente, parroquia y las viviendas de Ozana.

Se finaliza la ruta paseando por las orillas del río Ayuda admirando su bosque de ribera formado por chopos, arces, fresnos y sauces en el que encontramos antiguos molinos, vestigios de otros tiempos.

Cimas de la sierra de la Cogolla: El Cerro (901 m.), La Culebra (885 m.), La Cogolla (874 m.) y Alto del Silo (835 m.).



8,3 KM

145 M.

2,13 H.




MOSCADOR-DORDONIZ-ERMITA SAN ANDRÉS

MOSKATOR-DORDONIZ-SAN ANDRES BASELIZA

Parte de esta ruta discurre por el antiguo camino que comunicaba Treviño con Peñacerrada, por tanto, Dordoniz fue un punto estratégico y con mucho tránsito, al situarse entre el cerro "alto de Dordoniz" y el paso al valle de Tobera o del río Rojo.


Partimos de la pequeña localidad de Moscador de Treviño, aunque igualmente se puede iniciar la ruta en Dordoniz, de cualquier manera, se recorre una ruta circular entre campos de cultivo, descubriendo estas dos localidades, y visitando la ermita de San Andrés de Dueso, ubicada en el antiguo despoblado de Dueso.

Es reseñable el patrimonio histórico de Dordoniz en el que se destaca el conjunto formado por el lavadero y la fuente (ésta de finales del siglo XIX); y la parroquia de Santiago Apóstol. La propia advocación de la iglesia nos indica lo importante que era el traslado de personas y mercancías.



Desde la ermita de San Andrés

San Andres baselizatik



Ibilbide honen zati bat Trebiñu eta Urizaharra lotzen zituen bide zaharretik doa. Horregatik, Dordoniz puntu estrategikoa eta pasabide handikoa izan zen, "Dordonizko gaina" muinoaren eta Tobera ibarrerako edo Riorrojo ibairako igarobidearen artean zegoelako.

Moskator herri txikitik abiatuko gara, baina Dordonizen ere has daiteke ibilbidea. Nolanahi ere, ibilbide zirkularra egingo dugu soroen artean, bi herri horiek ezagutzeko, eta Duesoko San Andres baseliza bisitatuko dugu, Duesoko eremu zaharrean.

Ondare historiko aipagarria du Dordonizek, non ikutztegiak eta iturriak (XIX. mende amaierakoa) osatzen duten multzoa eta Done Jakue apostoluaren parroquia nabarmenzen baitira. Elizaren izenak berak adierazten digu zeinen garrantzitsua zen pertsonen eta salgaien garraioa

7,8 KM.

213 M.

1,35 H.

TARAVERO-MORAZA



Taravero

A pesar de ser una ruta circular, se recomienda comenzar en la localidad de Taravero para evitar un tramo de pronunciada pendiente. Es un precioso camino entre vegetación mediterránea (quejigos, enebros, lavandas y tomillos) que relajadamente va ascendiendo pasando por unas formaciones de roca caliza y tierra arcillosa que dan mucha belleza al paisaje. Se deja a la izquierda la Sierra del calvario y se atraviesa la zona de la Bergundina para ascender al monte Otero (822 metros), desde donde tendremos una panorámica hacia el sur de la sierra de Tolón o de Cantabria y al norte los montes de Vitoria. Todos ellos son el límite natural y topográfico que limita al Condado de Treviño.

De esta cima se descende a la localidad de Moraza por un camino con pronunciada inclinación, por eso el sentido de esta ruta. Desde Moraza en dirección noroeste se retoma la vuelta a Taravero por un camino agrícola que atraviesa la zona de Zamauturri. Transcurrido un kilómetro y medio se abandona este camino y se asciende a la derecha por un sendero que atraviesa un denso quejigal-encinar. Se descende a Taravero a través de un camino con diversidad de especies como el serbal de los cazadores, el mostajo y algunos pinos silvestres y finalizamos la ruta llegando al pueblo por un sendero rodeado de huertas y frutales.

Ibilbide zirkularra den arren, Taravero herritik abiatzea gomendatzen da, malda handiko tarte bat saihesteko. Landare mediterraneoena (erkametz, ipuru, izpiliku eta ezkaia) arteko bide ederra da, eta pixkanaka gorantz doa, kareharri eta buztin-lurrezko formazioetatik pasatz, paisaiari edertasun handia ematen diotenak. Kalbarioko mendilerroa ezkerretara utzi, eta Bergundina inguru zeharkatzen da, Otero mendira (822 m) igotzeko. Handik, Toloño edo Kantabria mendilerroa ikusiko dugu hegoaldera, eta Gasteizko mendiak iparraldera. Horiek guztiak Trebiñuko konderriaren mugak natural eta topografikoak dira.

Tontor horretatik Moraza herrira jaitsiko gara malda handiko bide batetik; horren ondorio da ibilbide honen noranzkoa. Morazatik ipar-mendebalderantz Taraverora itzuliko gara, Zamauturri inguru zeharkatzen duen nekazaritza-bide batetik. Kilometro eta erdi igaro ondoren, bide hori utzi eta eskuinetara igoko gara erkamezti-artadi trinkoa zeharkatzen duen bidezidor batetik. Taraverora jaitsiko gara hainbat espezie dituen bidean barrena, hala nola otsalizarra, hostazuria eta zenbait basa-piniu. Ibilaldia amaitzeko, baratze eta fruta-arbolez inguratutako bidezidorretik helduko gara herrira.



6 KM.

425 M.

1,47 H.



BAGATZEDERRA


Entre las localidades de Laño, Obécuri y Bajauri se extiende una espesa masa boscosa de robles (*Quercus pyrenaica*) en las zonas más profundas de los valles- y hayas (*Fagus sylvatica*) en la parte más alta, que son la continuación natural de los bosques del Parque natural de Izki. Desde las inmediaciones de cualquiera de los tres pueblos parten numerosos senderos que permiten internarse entre los hayedos o los robledales y disfrutar de toda la magia de la naturaleza de este lugar.

Partimos del pilón, "Zuriaga", al final del pueblo en la carretera a Lagrán, para dirigirse al camino de Laño, pasado un kilómetro nos adentramos en el hayedo **Bagatzederra** (hayedo hermoso o grande) y en ligera ascensión se llega a una zona abierta donde contemplar la sierra de Cantabria (el monte Palomares y San Tirso entre otros). De nuevo el sendero se adentra en el bosque y descendiendo lo rodeas, se deja a la derecha otro camino que vuelve a Bajauri atravesando el bosque o si se quiere alargar la ruta se continua por el camino paralelo a un arroyo.



Hayedo de Bagatzederra

Bagatzederra pagadia



Laño, Obekuri eta Baxauri herrien artean, haritz (*Quercus pyrenaica*) eta pagoen (*Fagus sylvatica*) baso-masa trinkoa dago, haranen eremurik sakonenetan eta zatirik garaienean, hurrenez hurren. Izkiko Parke Naturaleko basoen berezko jarraipena da. Hiru herrietatik hainbat bidexka ateratzten dira, pagadien edo hariztien artean barneratzeko eta bertako naturaren magiaz gozatzeko.

Herriaren amaieran, Lagranerako errepidean, Zuriaga askatik abiatu eta Lañurako bidera joango gara. Kilometro bat igaro ondoren, **Bagatzederra** (pagadi eder edo handia) izeneko pagadien sartuko gara. Pixka bat igoz, eremu ireki batera iritsiko gara; bertatik, Kantabriako mendilerroa ikus dezakegu (besteak beste, Palomares eta San Tirso mendiak). Bidexka basoan barrena sartzen da berriz, eta, jaitsiz gero, eskuinetara beste bat utziko dugu, basoa zeharkatuz Baxaurira itzultzen dena; bestela, ibilbidea luzatu nahi izanez gero, bidea jarraituko dugu erreka batekiko paralelo.

VARIANTE



ALDAERA

5,4 KM.

393 M.

1,30 H.



Más tracks en

ES.WIKILOC.COM

Ibilbide gehiago hemen



Más información en

WWW.CONDADODETREVIÑO.ES/RUTAS

Informazio gehiago hemen

NOS
IMPULSA



**Junta de
Castilla y León**



Ayuntamiento de Condado de Treviño

Treviñuko konderriko udala